

MERKATUEN SEGMENTAZIOA

Gaur egun, XXI. mendean, ia pertsona guztiek dute gailu bat (mugikorra, ordenagailua...). Hala ere, gure ustez, eguzki-argiak kargatutako mugikor berri hau egokiagoa da 17-50 urteko erabiltzaileentzat, mugikorra eta teknologiak gehien erabiltzen dutenak baitira. Beraz, pertsona hauek izango dira gure merkatu segmentua.

Gure produktua erabiltzen duten gazteek mugikorra etengabe kargatzeko zain ez egotea onartuko dute. Gainera, mugikorra azken belaunaldikoa denez, kalitate handiko sistema eragilea du, eta kalitate handiagoa ematen dio bai kamerari, bai mugikorraren edukierari.

Gure erosleek, bai z belaunaldiko bai aurreko belaunaldietako pertsona batek, lehen aipatutakoa kontuan hartuko dute; izan ere, kamara ona izatea, espazio ona izatea eta gure gailu elektronikoa erraz baita etengabe kargatu ere ahal izatea garrantzia handia dauka edonork bilatzen duen zerbait delako.

17-50 urte bitarteko pertsonaz gain, horiek diru sarrera bat badute, eta hori ahalbidetu badiezaiekete, gure produktua azken mugikorrak erosi ohi dizkieten gazteentzat ere izan liteke, "Modan" egotea eta merkatuko azken produktuak edukitzea gustatzen baitzaie. Gailu elektronikoa ona ere izan daiteke, adinekoekin bateragarria; izan ere, produktu horrek edonoren arreta erakartzen du, eta ingurumenarekiko produktu jasagarria izateak adineko pertsonak hura ulertzea eragin dezake.